

# Goibek kale


Elgetako aldiakaria azaroa 51ek.

FERMIN IRIBAR  
SAN ROKE 36-1

BAZKIDE EGIN ZAITEZ



# Oraindik HIES. ate joka



## Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

**Euskal mendizale museoa**

Kaixo lagunok!

"Euskal mendizaleen" museoarean gainean lerro batzuk idatzi nahi ditugu:

Gure iritziz

Elgetan museoa ipintzea ondo dago, baina herriko beste toki batean ez ote litzateke hobeto egongo?

Dakizuenez, eskolan ez dugu jolastoki estalirik eta irtenbide moduan 3. pisua erabiltzen dugu eguraldi txarra egiten duenean jolasteko. Bertan museoa ipintzen badigute, non jolastuko dugu guk?

Berriro ere gela barruan pasa behar ote dugu negu osoa? Noiz izango dugu behar den bezalako jolastoki bat?

Batenbatak erantzun egokia aurkituko duela.

5. mailako ikasleak

**Nora goaz horrelako prixiakin?**

Azken urteetan lehenengo munduak hartu duen abiadura ikusita, gure arbasoen bizimoduari begirada bat botatzea ondo etorriko litzaziguke.

Europa mendebaldean bazen zibilizazio bat Aintzinako Europa deitutakoa, kristo aurreko 7.000 eta 3.500 urteen artean zena, ez zen gorputza eta gogoaren artean bereizketarik egiten, gizarte artean ez zegoen estaturik eta metal-

gintza menperatzen zuten arren, armagintzan ez ziharduten.

Gehienbat ludikoa zen gizarte hura, ilargi aldi eta urtaroretan oinarriturik zegoen, zibilizazioa oso matriarkala zen, nekazaritza eta animalien hizkuntza ezagutzeaz gain, hiri xumeak eraikitzen zituen.

"Aintzinako

Europa"ren aztarna nagusiak Lituania eta Irlandako gune batzuetan eta batez ere Euskal Herrian omen daude. Mariren mitologian, ilargi egutegiaren erabileran, gizarte matriarkalean eta jaiei emandako baloreetan oinarrituta.

Halako abiadan dihoan gizarte konpetitibo honek, noizean behin geldigune bat egin beharko luke, nora goazen ikusteko, hainbeste autopista, abiadura handiko tren, antena eta halako eraikuntzaz gure ingurua josiz. Galdetu ia mundu zibernetiko honetan gizakiak zer toki duen.

Aurrerapen denak ondo erabiliz beharrezkoak dira, baina aurrerapenen alde itsutu gabe, lehenagoko zibilizazioaren bizi-balorre batzuk, gaur egun kontuan hartu beharko genituzke.

Zeharo estresatuta bizi garen mundu honetan, lasaiago bizitzen ikasi, lana banatuz, eta denbora gehiago erabiliz ingurua eta ingurukoak maitatzen.

Sebas Arantzabal

**Nik bost antena ifiñiko nittuke**

Esan gurako leuke, gehixen bat be bi-hiru lagun mobidu diran moduan (bosteko taulia aplikauta) hamar mobiduko litzakezela, edo bilera batera astebeteko tartiakin deittu, astegun zurixan izan eta larregi kontrolatzen ez dogun gaixa izan arren hamar persona batu diran moduan berrogeta hamar batuko lirakezela. Gaiñera, horrek berrogeta hamarron artian euskeraz komunikatzen dan lagun taldea be haundixaua litzake eta informaziñua euskeraz be jasoko giñuke etxeko buzoian.

Esan gura da, antenian kontuakin mobidu dan guztia mobitxia txarto dagola esatera ez noian arren, badarela herrixan hamaika motibo igitaixa eskuan hartu eta bedar txarrak sustarretik etaratzeko, edo behintzat horretan saiatzeko, edo laguntzeko, edo abonua botatzeko, edo barrixak landatzeko, edo...

Ah!, baiña dana ez da ba sustarrok etaratzia izango bakarrik. Sustarrak etaratzeko erain be egin bihar dira eta hori bai dala kostosua (sua diñot, erretzeko posibilitade asko emoten dabelako), izan be, eraittia gutxi balitza, gutxiena dalako, eta ihartuta baiño loran ikustia gehixago gustatzen jakulako.

Esan gura da, eraitten (edo nahixau eraikuntzan?) jardutiai emoten dotzatela inportantzia. Zer ez dogun gura, itxuria danez, danok dakigu, baiña ez dot ikusten gura dogun horretan (egunen baten bateonbatak proposatuko ete dau zer edo zer sendua: nundik, nora, zelan... ) inddarra egitten dogunik. Ez dogu azka egitten azkuria dagon lekuan, ze ez dot sinisten inok azkuraik ez dakanik.

Gura dot, balixo haundixa dakala uste dotelako, herrittarrak aktibo ikustia, antena-zulua tapau dan (edo tapauko dan) moduan harutzatxuau harritxon bat ifiñi leikelako. Azkenian, hoixe da herrixak benetan gura dabenan alde egiñ eta proiektuak aurrera eruateko bidia. Beti egindda dagonai edo egittiar dagonai orraztuak emon barik proiektu serixuak aurkeztu eta aurrera etara biharrian gare. Antenian burrukia irabazi eta gero gerria geratzen da ondiokan!

Ojo! antenaik ez dago Uruburun mobidu egin dalako eta ez neban gutxiau espero. Zorionak! Hala eta be, segi azkurei azka egitten.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-714/2/96

*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



## Idatzi kolaborazio bat!

**L**aubat aldiz idatziko nuen kolaborazio bat aldizkari honetan, baina sekula ez nuen aurrekoan beste kritika jaso.

Euskara eta euskara defendatzeko moduez hitzegiten nuen, eta gai horri buruz daukadan ene eritzia (betiere, pertsonala eta apala) azaltzen nuen. Besterik gabe.

Kuestinua da, euskararen "politizazio" maila azaldu nahi izaterakoan, preso politikoen gaia ikutu nuela. Horixe izan zen nire ipekatua. Dena den, ez nuen esan euskararen defentsak bere konnotazio politiko, kultural edo sentikorak ez daukazenik, edo euskal preso politikoen egoera ezagutzen ez dudunik (askok ulertu nahi izan zuten bezala). Ez nuen inon nire ideologia politiko konkretua azaldu, abertzaletasuna senti dezakedala esatetik aparte. Eta ez dut uste, ideologia ñez-azaldu hori dela eta, inork ezer erakutsi behar didanik gai hauetan, edo iborrokaren alderen baten kokatzen naizenik.

Nere idatzian euskari edo euskal presoei zuzendutako ofentsaren bat ikusi zuenak, a) ez zuen ondo irakurri (agian ondo azaldu ez nuelako), edo, b) isujetu hipersentikorra da bere ingurune politikoa ikutu dezaketen gaiekin. Ziur nago, idatzitakoa kritikatu zuten asko, bigarren aukera honetan daudela, ze, nireganaino heldu ziren kritiken artean ipreso politikoa hitza gehiago entzuten zen iuskarai hitza baino. Esanguratsua, ezta?

Presoak defendatzeko edo gizartea informatzeko beharra sentitzen baduzue, idatzi kolaborazio bat (Goibekokaleko zuzendariak, seguruenik, asko eskertuko dizue), baina, arren, ez hartu nik idatzitakoa aitzaki moduan.

Ibane Abasolo



## Aldeko botua

**A**zkenaldi honetan asko entzun eta irakurtzen da zentral eolikoei buruz. Guztia Elgean egingo duten zentrala oso hurbil dugulako edo. Elgeako kasu konkretuan, gestioetan irregulartasun ugari izan omen da:

obrak inplikatu guztien adostasun gabe egitea nahi, ingurunea behar baino gehiago hondatu, etab. Honelako arrazoietan oinarrituriko kekek onartzen ditut.

Baina badira bestelakoak ere: estetikoki itsusiak direla, mendizaleak mendirik gabe gertuko direla, zarata handia ateratzen dutela, helizeen hatzaparretan txori ugari akatuko direla... ez al da askoz ere garrantzitsuagoa energia elektrikoa (bizitzeko beharrezkoa duguna) era natural batean ateratzea inungo hondakinik eta kutsadurarik sortu gabe? Zentral nuklear eta termikoen kalteak ezabatu, edo gutxienez murriztu nahi baditugu, beste alternatiba batzuek aurkitu beharra daukagu. Gainera probetxua maximoa izan dadin zentral eoliko bat, adibidez, leku haizetsu batetan kokatu beharra dago. Beraz, lekua, neurri haundi batetan, naturak aukeratzen duela esan genezake.

Nik honelako eraikinen aldeko botua ematen dut, alde on eta txarrak kontuan hartuz. Egiten duten zarata apala da, txoriak uxatzeko zerbait egitea posible da eta gainera zentral nuklear edo antzekoak estetikokoak al dira? Sortzen dituzten hondakinek itsasopean ez dute estetikoki arazorik sortzen baina argi dagoena da energia elektrikoa sortzeko ezagutzen diren metodoen artean ez dagoela bat bera ere ondorio negatiborik gabe. Aukeratu ditzagun beraz ondorio negatibo arinenak dituztenak.

Amaitzeko, kasu ideala zera litzateke: naturak eskaintzen dituen baliabideekin lor daitekeen baino energia gehiago ez kontsumitzea. Gaur egun utopia baldin bada ere, saiatu gaitzen argi indar gutxiago gastatzen, guztion mesedera-ko.

Iban Retolaza

**kutxa** *gizarte-ekintza obra social*



Eusko Jauriaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

### GOJBKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gaztetxia. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolaza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. ISSN: 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Udaletxearen erantzunaren zain

Antenak Urruntzearen Aldeko Taldea (AUAT) Udaletxearekin harremanetan jarri zen azkenengo bileran, Udaletxeak bideratuta zuen ikerketa baten ondorioak jaso ondoren emango zuela azken erantzuna adierazi zuen. Erantzun horren berri abenduan egingo duten hurrengo bileran emango da. Bitartean AUAT hainbat ekintza egiten ari da. Ekintza hauek bat siñadurak batzea izan da. Guztira 400 siñadura inguru batu dituzte. Guraso Elkarteak eta Gaztetxeak euren laguntza eskeini diote talde honi eta aurrerago egitekoen artean beste elkarte batzuen laguntza eskatzea izango da. AUAT-k herritarren informazio falta betetzeko bideo emanaldi bat emango du azaroak 26an arratsaldeko zazpietatik aurrera gaztetxean.

Santi Lopez Poltsikoko telefonoen antenak urruntzearen aldeko komisioko partaidea Elgetako liburutegian izan genuen hilabete hasieran eta hogeita hamar entzule inguru batu ziren. Santi Lopezek Goibekokaleri hi-

tzaldiaren amaieran adierazitakoak dituzue ondorengoak.

- Zein kalte ekologikorekin parekatu daiteke antena hauen uhinen eragina?

Antena oso haundiak jarrita dauden lekuetan gertatu izan da inguruko zelaietan belar gutxi egotea, baiña hala ere ez da ezagutzen kalte ekologikorik sortu dezaketarik.

- Zein osasun kalterekin parekatu daiteke uhinen eragina?

Desberdindu egin behar da telefono mugikorrek egin dezakeen eragiña eta antenak egin dezakeen eragiña. Telefono mugikorren eragiña epe motzera izan daiteke, urte batera edo bi urtetara sortu ditzakeen eraginak larriagoak ezan daitezke. Antena hauek gauza dira eragin larriak sortzeko epe luzera, zortzi, hamabi urtetara. Adibidez buruko minbizia.



Poltsikoko telefonoen antenak zeresan ugari ematen ari dira.

- Zientifikoki badago zerbait frogatuta ala ondorioak oraindik ikus-teko daude?

Laborategietan animaliekin eta baita gizakiekin frogatuta dago uhin mota hauek beste uhinek baiña kalte larriagoak sortzen dituztela.

- Arazoa antenaren inguruan sortu da, baiña hainbat tresnaz inguratuta bizi gara. Zein apa-

railuk eragiten du elektromagnetismoa? Etxean ditugun aparailu guztietatik mikrouhina al da kaltegarriena?

Mikrouhina ondo eginda egonez gero ez luke barrutik mikrouhin batek ere irten behar. Hala ere, aparailu horrek beste eremu magnetiko bat sortzen du, beste edozein aparailu sortu dezakeen bezalako.

- Irtenbide baten bila, zer egin daiteke antena jar ez dezaten?

Indarrak elkartu, antolatu, informatu ahal den guztia eta teknikariei laguntza eskatu.

*Antena hauek gauza dira eragin larriak sortzeko epe luzera, zortzi, hamabi urtetara. Adibidez buruko minbizia*

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18

Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# Euskal presoen alde

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzearren, Batera plataformak kontzentrazioak antolatu ditu urte bukaerarako. Isilean burutzen diren ekin-tza hauek pasadan hilaren 17an hasi ziren eta hamabostero errepikatuko dira Euskal herriko herri eta hiri guztietan. Elgeta ez da gutxiago izan eta Gaztetzak, EHk eta EAJ/EAK egindako deialdiari jarraituz jende dexente hurbildu zen herriko plazan egindako kontzentrazioa. Ekimen



**Udaletxera hurbildu zen jendeak hotzari aurre egin zion.**

honi abenduaren 31an emango zaio amaiera herri bakoitzean manifestaldi bana eginda.

# Mendi irteerak Untzilaitzen hasi ziren

Ozkarbi Elkarteak eta Gaztetzak hainbat mendi irteera antolatu ditu. Lehenengo Mañaritik gora dagoen Untzilaitz mendira izan zen hilaren 1ean. Azaroak 21erako, inguruko mendiak garbitzera joateko irteera antolatuta zegoen, baina bertan behera utzi behar izan zen edurra zela eta. Irteera hau hurrengo iganderako atzeratzea erabaki zuten eta ordu berean



izango da. Hurrengo egingo den irteera Kurtzebarri mendira izango da, kasu honetan Ozkarbi elkarteak antolatuta.

**Amuriza Elgetan**

Xabier Amurizak Lazkao Txiki zenaren bertsoak kantatuko ditu datorren hilaren 17an herriko liburutegian kultura batzordeak antolatuta. "Lazkao txiki, bat-bateko sorgina" izenburua duen ikuskizun honetarako, bertsolari bizkaitarrak Lazkao Txikiren ehun bertso aukeratu ditu. Era guztietako bertsoak izango dira, hala nola, bere buruaz kantatutakoak, sentimenduzko bertsoak, umorezkoak... Lazkao Txiki hobeto ezagutzen lagunduko digutenak.

## Goikobalu Abesbatzaren emanaldia

Azaroak 27an, zapatua Arrasateko Goikobalu abesbatzak emanaldia eskeiniko du elizan.

Emanaldia gabeko 20:15etan izango da, meza amaitutakoan.

## Liburu bildumak salgai

Lau liburu bilduma erdi prezioan salgai daude liburutegian. Liburu bildumak "Gran Larouse de la cocina" (18.500pta.) "Historia de la literatura Española" (15.000pta.), "Euskaldunak-La etnia Vasca" (18.500 pta.) eta "Diccionario retana de autoridades del euskera" (43.200pta.) dira. Bilduma hauek nahi izanez gero abenduak 17a baino lehen liburutegira joan beharko da izena ematera, interesa batek baino gehiagok izanez gero zozketa egingo da.

## Gaztetzeko agenda

### Rock kontzertua:

Abenduak 10, XXL eta Frenopatics

### Pelikulak:

Abenduak 8. "Los amantes del circulo polar"

Abenduak 12. haurrentzako euskaraz "Bagdadeko lapurra"

Abenduak 19. "Se lo que hicisteis el último verano"

Abenduak 11. Partxis lehiaketa

**INAKI JATETXEA**

Leku paregabea,  
eguneko menua  
Tel: 943 76 82 83

**OSTATU JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 850 pta.  
Karta.

# Hiesa, XXI. mendeko gaixotasuna

Gaixotasunagatik eragindako heriotzak gutxitu badira ere gizartearen diskriminazioak hor jarraitzen du

Gaztetxeak eta Deba Garaiko Hies Ekimenak antolatuta sentsibilizazioa astea izan da Elgetan. Erakusketa eta mahai informatiboa, pelikula emanaldia, hitzaldia eta merienda izan dira aipagarrienak.

Azken hiru urteetan bezala Gaztetxeok Hiesaren inguruko ekitaldia egin dute. Edurra zela eta hitzaldia eman behar zuena ezin izan zen etorri, hala ere Arrasateko taldeko Rafa, Marian eta Franek Hiesari buruzko informazioa eta gaixotasunak ekartzen dituen oztopo eta arazo berri eman ziguten bertaratu gineno. Hitzaldia amaitu eta merienda goxoa jan ondoren galdera batzuei erantzutera animatu ziren.

## - Zeini zuzendua dago sentsibilizazio kanpainak?

Mundu guztiari begira antolatzen dira. Eskoletatik kanpo antolatzen ditugunean batez ere gazteak izaten dira parte hartzen dutenak. Guri jende nagusia ere etortzea gustatuko litzaiguke, esan behar da nagusiak gaixotasuna beraiengatik urrun dagoela uste dutela. Ez da horrela, adibidez, senar emazteetatik kanpo gertatzen diren harreman sexualak ugarriak dira.

## - Jendeak parte hartzen



*"Nagusiek gaixotasuna beraiengandik urrun dagoela uste dute".*

## du kanpainan?

Guk batez ere Eskolatan egiten ditugu kanpainak, jendeak parte hartzen du, baina askotan tiratu egin behar izaten zaio. Gaztetxe eta gazte lokaletako hitzaldietara joaten da batez ere jendea. Udaletxe edo nagusien lokaletan antolatzen ditugunean erantzuna oso eskasa izaten da gehienetan.

## - Zein izan da Hies Ekimearen ibilbidea urte hauetan?

Hies Ekimenak hamar urte darama lanean, Jon Salaberrik sortu zuen, Jon hilda dago eta orain bere ama Domi da lehendakaria. Taldean hainbat azpialde ditugu, garrantzitsuenetakoak elkarri laguntzeko dugun taldea eta erlazazio taldea dira. Bestalde, hitzaldiak, kondoi banaketak, komiki lehiaketa eta beste zen-

bait ekitaldi egiten ditugu urtean zehar.

## - Nola dago gaur egun hiesdunen egoera?

Euskal Herrian orain arte gaixotasunak garrantzi handia izan du, esan behar da, Elgoibar orain dela gutxira arte Europako kutsatu portzentai handienak zituena zela. Hiesdunen arazo larrienak, lana bilatzeko, banku batean prestamoak egiteko, bizi aseguruak egiteko...orduan izaten dira. Gizartea gaixotasuna onartuz doa, baina beragatik gertu dagoen bat kutsatuz gero askotan, atzera egiten du.

## - Zein aurrerapausu eman dira zientzia arloan?

Pastilak direla eta gero eta jende gutxiago hiltzen ari da. Pastilak subentzioen bidez jasotzen dira oso garestiak dira eta. Hala ere, esan

behar da pastilen tratamenduak oso gogorak direla, batzuk eguneko 20 pastila hartu behar dituztelako. Gainera pastilek bigarren mailako efektuak sortzen dituzte.

## - Pertsona batek arriskutsua den zer-bait egin badu, zein izango zen bidea, gaixotasunakin harremanetan egon dan jakiteko?

Honetarako bi bide daude, zuzenean ospital batera joatea eta guk gomen datutzen duguna, gure moduko talde

batekin harremanetan jartzeta eta anonimatoan, froga egitea. Honek inongo erregistroan ez sartzea ahalbidetuko luke. Orain geldu dagoela esan diguten arren, hiesdunekin zerrenda bat eratzen ari ziren, zerrenda honekin hiesdunak kontrolatuta dauzkatarik. Listak, noski lan edo prestamo eske joatean enpresen eskuetan daudela kontuan izan behar dugu. Esan digutenez zerrenda gelditu dute, baina ez gaude guztiz ziur.

## - Abenduak 1ean Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatuko da, Zein eritzi duzue egun honen inguruan?

Egun hau garrantzitsua da, baina gogoratu behar dugu arazoa eguneroko gurekin dugula ez bakarrik abenduaren 1ean.

## Gas sarea ipintzeko asmotan Beheko kaleko etxeetan

Etxe berrietan gasaren instalakuntza lanak aurrera doazen neurrian, beste herritar batzuk ere animatu eta oraingotan Beheko kalekoak dihardute gas instalakuntza komunala ipintzeko asmotan. Egin asmo duten lanok kalea konpontzeko egin behar diren lanak aprobetxatuz egin nahi dira eta, beti ere, zolu berria bota baino lehen.

Etxe berrietako instalakuntzak hamasei bat etxe hornituko dituen bitartean bigarren sare honek 24 bat etxe emango lioke zerbitzua. Eta aurrekoan bezala kamino "jenerala" zeharkatzea ebitatu nahi izan omen dute bultzatzaileek.

Sistema zisterna edo bonbona handi autonomoa jartzearena izango da eta ez gaseodukto sareari lotzearena.

### 2.000. urterako aurrekontuak

Angiozarko Bailarako Batzarrak egingo duen abenduko lehen bileran Bergarako Udalaren datorren urteko aurrekontuetan sartzeko proposamenak aztertuko ditu. Bilera hau hileko lehenengo martitzenean izango da eta interesgarria izango litzateke bertara auzo guztietako ordezkariak biltzea, horrela denen iritzia jaso eta ahal den proposamen orekatuena egiteko.

### Bataio berri bat

Pasa den urrian bi bataioren berri eman bagenizuen oraingotan beste baten notizia dakarzkizuegu orri honetara. Pasa den azaroaren 21ean bataiatu zuten, San Migel Parrokian, Berrandona baserriko neskatilatxo berria: Deiana Margues Mendikute. Umetxoaren soineko txuriez gain kanpoak ere ospatu nahi zuela eta elurrez zuritu ziren mendi eta teilatuak. Zorionak gurasoei!

# Etxe berriak bultzatzeko bilera informatiboak

Azken hamar urteetan idatzirik dagoen Plan Urbanistikoa gauzatu nahian eta, bide batez, gazteen artean dagoen etxe berrietarako kezkarierantzuna eman nahirik, etxe berriak bultzatzeko bilera informatiboak hasiak dira berriz interesa dutenen artean.

Lehenengo bileretan datu bilketa egin eta orain arteko pausoak aztertu dira. Ondorengo bileretan eman nahi diren urratsak zehaztu eta instituzioekin harremanetan jartzeko asmoa dago.

Espero da oraingotan lana sakon egin eta azken muturreraino joko dela, behingoz etxe faltaren eta populazio jetxieraren arazoari aurre egingo dion mugimendua abian jarritz.


Etxeok Dolara eta Arbiaska frontoiaren tartean eraikiko lirateke eta oraingoz planak hamalau etxe bizitza aurreikusten ditu. Interesa dutenak liburutegian informadaitezke bilera egunez eta bertara inguratu lana bultzatzeko.



Angiozarren, Elgetan bezala, etxebizitzak egiteko asmoa dago.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA  
DEKOLETATA ETA  
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

**TAPEM**, S.A.

Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

# Ohitturia dakazu Durangoko liburu eta diskuen azokara fateko? Zer erosten dozu gehixen?



Urte Castaño  
(13 urte) Ukaslia

Ez naiz urtero faten, urte batzutan bai beste batzutan ez. Oinguan ez dakit fango naizen, ondiok ez dakit. Faten naizenian, normalian liburuak erosten ditud.

Ez dakit ohitura moduan Durangoko azokara fatia, baiña parian tokatzen bajata fan egiten naiz. Zer edo zer interesantia ez bajata tokatzen parian ez dot ezer erosten.

Anegoia Jrazabal  
(30 urte) Bihargiña




Uste dot fango naizela. Umientzako liburu edo bideon batzuk, poster batzuk eta mendiko zer edo zer erosten dot normalian. Eta hori bai, behin han egonda juergatxon bat botatzeko aprobetxatzen dogu.



Josu Eixariz  
(13 urte) Ukaslia

Urtero ez naiz fan baiña gehixenetan bai. Normalian liburuak erosten ditud diskuak baiño gehixau. Oingo urtian ez dakit fango naizen, igual bai.



Imanol Molinero  
(24 urte) Bihargiña

Ohitturia dakat fateko, urte askuan fan naiz. Goguakin fan arren azokia ikusteko hainbeste jente artian goguak kentzen jatzuz. Hori da azokiak dakan puntu txar bat. Gehixenetan diskuak erosten ditud, liburuak baiño gehixau.

Kontxi Ubarluzea  
(43 urte) Bihargiña



Ez nai z sekula fan eta ez dot uste oingo urtian be fango naizenik. Liburu eta diskuak erosi behar ditudanien liburudenda edo diskodenda normalietara faten naiz.

Juan Antonio Migura  
(38 urte) Bihargiña



**Aperribay, s.l.**  
Marmoldegi eta granitoak  
Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**Jarri zure iragarkia**  
Tel: 943.78.90.85

Kartetan jokatzeko giro egokia  
Tel: 1 768093  
Kopa bat  
**Paxi Taberna**

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus Arrazola  
**VIVO**  
Janari denda

**EROSLE**  
M. Asun Agirre  
Salbador 26. Tel: 768190



**ARIES:** Kiluak galtzeko asmuakin habil? Ez dittuk/dittun fetxa onenak, baiña gozua laga ezkerro gaixki be ez hitzan ibiliko.

**TAURUS:** Mendixan aspaldixan ez haixela fan! Badakak/badakan ba asteazkenaroko plana. Botak jantzi eta mendira.

**GEMINI:** Hire autoestimia hobetu beharoko huke eta horretarako badakik, heure burua ez badok/badon maittazen ez jaok/jaon zereñik.

**CANCER:** Asteazkenian diru piskat aurreratu biharko dok/don asteko gastuei aurre egituko. Beti larri-larri ibiltzen haiz.

**LEO:** Beti biharrian egoten ba haiz be ez laga pasatzen momentu honek. Fan lagunekin eta ahal doken/donan neurrixan etara probetxua.

**VIRGO:** Hire "look" a aldatzeko asmuakin habilela? Hori egittia ona dok/don, bada-kik/badakin aldatziak sorpresak emoten jittxuk/jittxun.

**LIBRA:** E gixa esatia komeni jata/jana, nahiz eta ez izan egi oso-osua bihardan moduko zeeze esatiak ez dua/dona kalteik egiñgo.

**SCORPIUS:** Azken aldixan parranda larregi eta gero kazia, eta gero... nahiko kantzautu habil. Zeeze pentsatzen hasteko ordua badok/badon eeeeeee...

**SAGITARIUS:** Katarru harrapatzeko aukeria haundixa dok/don. Badakik/badakin ez hadi ibili ipurdi bis-tan.

**CAPRICORNIUS:** Hire umore txarra baretu biharko dok/don, bestela ez jaok/jaon hire onduan egoteko moduik eta jentiak hirekin egoteko gogua jakak/jakan.

**AQUARIUS:** Burugogorkerixia alde bate-ra lag biharko dok/don eta bestiek diñue-na kontuan hartu, ona izaten dok/don beste pentsakera batzuk entzutia.

**PISCIS:** Bikotiakin pasatezn dok/don den-bora libre dana, ez hadi ahaztu ñlagunak be dakazak/dakazan. Ez dittuk/di-ttun nahi duanerako/donanerako bakarrik.

## Valeriano Beteta (34 urte) bihargiña

### - Zertan diharduzu?

Aretxabaletako enpresa baten lanian.

### - Musika taldeik gustokuena?

Danetik: Bide Ertzean, Dover, Nirvana...

### - Janari bat aukeratzekotan?

Arroza.

- **Zure bizitzako ametsa?** Abioia hartu eta Kubara fatia.

- **Kolore bat?** Baltza.

### - Animalixa bat izatekotan?

Haundixa naizenez, jirafia.

### - Antenia, urriñ ala

**bapez hobe?**

Bapez hobe, horrek gero kontzekuentziak ekartzen ditu eta.

### - Zaletasun

**bat?** Hortik zihar ibiltzia, Eibarrera fan, zinia...

### - Usain bat?

Nesken kolonia, sua-bia bada hobeto.

### - Definidu zure burua hiru berbatan?

Langillia, batzutan alperra eta musikia bizi daban personia.

### - Pelikula on bat ala Eibarran partidu bat?

Eibarran partidu bat, aspaldi ez naiz fan.

- **Etxian sartutakuan egitten dozun lehenengo gauzia?** Kola-kaua pre-parau.

- **Ze ez dotsazu barkatzen jentiai?** Bestiena barre egittia eta ez

eukitzia errespetoik.

- **Durangoko azokan ze erosteko asmua dakazu?** Seguru nago liburuik ez dotela erosiko, baiña diskuak bai.

- **Azkenengo juergia Elgetan?** Gaztetxeko urteaurrenien. **Eta hemendik kanpuan?** Gutxi egin dittu.

- **Irratixa ala Telebista?** Bixak, baiña irratixa gehixau, musikia-gaittik.

- **Rebistako ze atal da zure gustokuena?** Jentrebistak eta Bapatekua.

### - Gustauko lejatzuke grupo baten partaide izatia?

Bai, eta gehixen bat baterixia jotia.



Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak  
ortartekoak.



tel: 768284

## Goio Sarasua

### Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

# Eskatola

Lehendakari agurgarria,

Elgetako biztanle batzuk gara eta gutun honen bitartez gauza batzuk eskatu nahi genizuke.

Gure herria ez da oso handia, bere biztanleak ia ez dira 1000ra heltzen eta gauza batzuk faltan botatzen ditugu.

Gure herrian ez daukagu zinemarik, naiz eta batzuetan herriko gaztetxean pelikulak bota. Gainera, ez daukagu piszinarik eta alboko herrietako piszinetara joan beharra izaten dugu.

Guk ez dakigu herriko Udaletxean zenbat diru dagoen, baina zuri atrebentzia ez bada diru pixka bat eskatzea pentsatu dugu, badakigu pertsona ona zarela eta gure herriari languntzea nahi diozula horregatik bakarrik eskatzen dizugu.

Elgeta oso herri polita da eta diru horrekin oraindik politagoa izango litzateke. Aste bukaeretan inguruko herrietako jendea etortzen da (gehien bat eguraldi onarekin), eta polikiroldegiko kantxa okupatuta egoten da. Gure eskaintza ez da beste munduko

gauza bat, guk belarrezko kanpo bat nahi dugu, horrela eskola kirolaegiten dugun neska-mutilok gure etxean jokatu genuke eta ez Bergarakoan.

Seguraski gauza asko eskatzen dizugula pentsatu duzu, baina guretzako zuri karta bat egitea, olentzerori eskutitz bat idaztea bezalako xoxea da, opari hauek ematen edo gure amete hau betetzen baduzu asko eskertuko genizuke, gainera gure herrira gonbidatuko genizuke, bale!

Gure aldetik hori da dena, bueno, baina orain eskatzen hasi garela beste gauza bat eskatuko dizugu:

Haur txikienezako parke itxi bat egitea nahiko genuke horrela haurren jabeak ez lukete beraien haurrak liburutegira eramango eta bertako jendeak erosoago ikasiko luke. Gure eskariak ez badira betetzen ulertuko dugu, baina eskatzearren ez da ezer gertatzen, ezta?

Bueno lehendakari jauna, honenbestez agurtzen gara.

## ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

## IBAIBA- RRIAGA GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

## E HARATEGIA A S T

San Roke 6  
tel: 768168.

# ETXEAK

zure esku

...eta kitto!  
drogeteniturri  
goibekokale  
pil pilean

## INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko ...eta kitto!, Elgetako Goibekokale, Ermuko Drogeteniturri eta Soraluzeko Pil pilean aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

**11.000 ale** kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

2. zenbakia. 1999ko azaroa

Publizista: Mertxe Agirre. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.

Tirada: 11.000 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 67 76

# AUKERA

INMOBILIARIA

 API 208

Etxebizitza eta lokalen  
salerosketa eta alokairua

Tasazioak

Aholkularitza

Gipuzko osoko eta era  
guztietako eraikinen  
datu basea zure esku

**Toribio Etxebarria 10, behea**

Tel. 943 12 13 95

Faxa. 943 20 06 41

20600 **EIBAR**

**IBAI-ONDO Inmobiliaria.**  
**EIBAR**

**Bidebarrieta 60**  
**Tel. 943 20 12 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Romualdo Galdos	2 logela, egongela/jangela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Ipuruako dorreak	3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	3 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna.	Galdetu
Eibar	Amaña	4 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Isasi	2 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa	3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna.	Galdetu
EIBAR	Miraflores (baserria)	3 solairu, 34.000 m <sup>2</sup> ko terrenoa.	Galdetu
ELGETA		3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
MUTRIKU		Logela, sukaldea/jangela, egongela, komuna, terraza.	Galdetu
ERMUA		2 logela, sukaldea, egongela, komuna.	Galdetu
EZKARAY		4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
NOJA		2 logela, egongela, sukaldea, komuna, garajea.	Galdetu
NOJA		3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Carmen 7-9	Garajea. 38 m <sup>2</sup> .	Galdetu
EIBAR	Asua Erreka	Lokala (400 m <sup>2</sup> ).	Galdetu
EIBAR	Legarre	Lokala (330 m <sup>2</sup> ).	Galdetu
EIBAR	Urkizu 7, behea	Lokal komertziala.	Galdetu
EIBAR	Barrena	Lokal komertziala (300 m <sup>2</sup> ).	Galdetu
ERMUA	San Lorenzo	Lokal komertziala (100 m <sup>2</sup> ).	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	Lokal komertziala (90 m <sup>2</sup> ).	Galdetu

**EDER Inmobiliaria.**  
**ZARAUTZ**

**Trinidad 1, behea**  
**Tel. 943 13 13 00**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela eta egongela. Iparra eta hegoa.	31.000.000
ZARAUTZ	Argiñano inguruan	2 logela, egongela, argitsua, garajea.	36.000.000
ZARAUTZ	Residentziala	Etxe izugarria, hondartzara begira, garaje bikoitza.	Galdetu
ZARAUTZ	Azken portu	4 logela, egongela, 2 terraza. Iparra eta hegoa.	29.000.000
ZARAUTZ	Hondartza parean	Logela bateko eta biko apartamentuak egongelarekin.	Galdetu
NAFARROA	Santacara	Erdialdean dagoen harrizko etxea herrixkan.	4.800.000

**ETXEAK**

zure esku

...eta kitto!  
drogeteniturri  
goibekokale  
pil pilean

...eta kitto!, Drogeteniturri,  
Goibekokale eta Pil pilean aldizkarien  
**INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**

**GARMENDIA Inmobiliaria.**  
**EIBAR**

**San Juan 9, behea**  
**Tel. 943 20 34 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Polonia Etxebarria	3 logela, komuna, egongela, sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Amaña	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	San Andres	2 logela, egongela, komuna, sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Argatzako jardiñak	135 m <sup>2</sup> ko lokala salgai.	Galdetu
NOJA (SANTANDER)		Pisuak salgai.	Galdetu
TORREVIEJA (ALICANTE)		Pisuak salgai.	Galdetu

**EKAIN Inmobiliaria.**  
**ZARAUTZ**

**San Ignacio 1, behea**  
**Tel. 943 82 70 49**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ITZIAR		4 duplex eraikiko dira garajearekin eta itsasora begira.	Galdetu
ITZIAR		2 logela, garajea, itsasora begira etxea eraikiko da.	Galdetu
ITZIAR		3 logela, garajea, itsasora begira etxea eraikiko da.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	Logela bateko etxeak eraikiko dira.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	2 logelako etxeak eraikiko dira.	Galdetu
GETARIA	Elkano kalea	3 logelako etxeak eraikiko dira.	Galdetu

**CARLOS VEGA INMOBILIARIA**

- ⇒ Erosketak
- ⇒ Salmentak
- ⇒ Alokairuak

San Juan, 1 ☎ 943 70 16 57  
**20600 EIBAR**

**EUKI** API (323)

ZURE ETXEA, LOKALA, GARAJEA...  
saldu nahi ezkeru, **etorri guregana**

T. Etxebarria 1 -EIBAR- Tfnoa. 943 20 03 58

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urkizuko dorreak	80 m <sup>2</sup> , 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, kalefakzioa.	27.000.000
EIBAR	Errekatxu	75 m <sup>2</sup> , 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	10.500.000
EIBAR	Paziano Arosa	Buhardila, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna.	7.500.000
EIBAR	Amaña zaharra	75 m <sup>2</sup> , 4 log, egong., sukal., komuna, gasa. Egoera onean.	15.900.000
EIBAR	J.A. Mogel	65 m <sup>2</sup> , dena kanpo aldera, berriztatzeko.	15.500.000
EIBAR	Ego-Gain	53 m <sup>2</sup> , logela, egong., suk., komuna. Berria, altzariak, gasa...	23.000.000
ZARAUTZ	Karmelitak urbanizazioa	70 m <sup>2</sup> , 2 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, garajea...	35.000.000
ZESTOA		Garajedun apartamentu, pisu eta duplexak.	12.000.000tik aurrera
ELGETA		Garajedun apartamentu, pisu eta duplexak.	14.000.000tik aurrera
Jatetxe-Hotela salgai.		Berria, guztiz ekipatua eta funtzionatzen dagoena	Galdetu
EIBAR	Eibarko Txikito	Lokala salgai, 200 m <sup>2</sup> .	22.000.000
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiko lokal komertziala. 115 m <sup>2</sup> .	30.000.000
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiko lokal komertziala. 170 m <sup>2</sup> .	43.000.000



**INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**

**35.000**  
**irakurle**

**11.000**  
**ale**

**Lau aldizkarion elkarlana**  
**zuen buzoietan**

**DROGETENITTURRI**

**Pil**  
**bi**  **ean**

**Goibekokale**





## Goibekokale Azokara

Urtero bezala, azaroaren 2an hasi eta 8ra bitartean, euskal liburu eta musika sormenen berri izateko aukera eskainiko digu Durangoko Azokak

Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azokaren 34. ekitaldia ganean da. Aurten ere disketxe eta argitaletxe ugari Durango aukeratu dute beraien lan berriak kaleratzeko. 130 lan berri baino gehiago aurkitzeko aukera izango da eta horretaz gain argitaletxe eta disketxe bakoitzak orain arte argitaratutako lanak ere bertan lortzeko aukera izango da. Besteak

beste, Su ta Gar-en "Homo Sapiens?", Joseba Sarrionandiaren "Hau da ene ondasun guzia", Joseba Tapiaren "Quebek: 14 kantu independentziarako" eta beste hainbat sormen interesgarri salgai izango ditugu. Goibekokalek ere ez du hutsik egingo zita garrantzitsu honetara. Topaguneko Standean aurkituko gaituzue.

Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azokak izenak berak adierazten duena baino askoz gehiago da. Inongo zalantzarik gabe bere oinarria diskoak eta liburuak (azken urte hauetan teknologi berrien atalak ere bere lekutxoan lortu du) diren arren, asteburu luze horretan sortzen den giroak, euskal giroak,

azoka batek izan dezakeen esanahiaren gainetik dago. Durangoko Azoka Euskal Herria eta euskara maite dugun guztion topagunea da. Milaka lagun hurbilduko gara aurten ere erakusmahietatik hainbat liburu eta diska ikusi edota erosteko asmotan, eta bide batez, Durangoko herri osoan sortzen den euskal giroa-

ren partaide izango gara. Ahaztezina bihurtzen den egun edota asteburu bilakatuko da Durango. Urtean zehar ia inon somatzen ez den euskal giroa.

### Nobedade ugari

Ehun eta berrogeita hamar lan berritik gora aurkitu ahal izango ditu-

gu inoiz izan den azokarik luzeenean. Musika arloan hortxe izango ditugu, besteak beste, Oskorrik Urretxuko herriaren laguntzaz egingako "Iparragirre bueltan etxera", edota Su Ta Gar-en, Piztiaken eta Txirri, Mirri eta Txiribitonen Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera egingako azken lanak. Zen-

bait bakarlariren lanak ikusteko ere parada izango da, hala nola, Mikel Urdangarinen "Haitzetan", Eramun Martirikoaren "Elorrietan loreak" eta Jabier Muguruza-ren "Ja, Ja" (berrargitararpena) eta "Fiordoan". Talde berrien artean Eraso, Benetan, 12 tribu eta Ene Bada dira aipagarrienak.

Idatzizko lanetan ere barietate ugari izango da. Mota guztietako ipuinak, pasadizoak, poesiak, biografiak, lan berrituak, itzulpenak... aurkituko ditugu. Lan guztien artean badaude batzuk beste guztiek baino zeresan gehiago sortaraziko dutenak. Horietako bat Joseba Sarrionandiaren "Hau da ene ondasun guzia" disko-liburua aurkitzen da. Lan honetan Sarrionandiak berak idatzitako hamasei poema errezitatzen ditu, poesia hauek musikatuko dituzten hainbat talderikin batera.



Goibekokalek ere izango du bere Tokia azokan.

Saiakera, kazetaritza eta beste atalean, Koldo Izagirrereren "Merry Chirstmas Panamá esan zuen heriotzak" ere emango du zeresanik, Ramon Saizarbitoriaren "Aberrien alde (edo kontra)" liburuarekin batera.

Baina hauetaz gain beste hainbat liburu interesgarri lortzeko aukera izango dugu. Biografiaren atalean adibidez, Andoni Egañak duela gutxi utzi gaituen Basarri bertsolari handiari buruzkoa aurkituko dugu. Itzulpenen artean Jose Saramago Nobel

Sariaren "Lisboako Setioren Historia" aurkituko dugu.

#### Teknologi berrientzako tokia

Teknologi berrien atalak ere izango du bere esparrua. Kontutan izaki hainbat argitaletzek, kultur taldek, komertzialek eta abarrek atal honetan egiten ari diren apostua antolatzaileek tartetxo bat eskaintzea erabaki dute azken urte hauetan.

Norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero antolatzaileek Internetean duten web orrira jo dezake, "durangoazoka.com" izenpean dagoen orrira.



Aurtengoa Azokaren 34. ekitaldia izango da.

**Euskal Liburu eta Diskoen Azokak milaka pertsona bilduko ditu aurten ere, euskal giro aparta sortuz.**

**ZABALA**

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



**HERMANOS S.A.**

**EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA**



# Liburu eta diska berri aipagarrienak

Liburuak

Egilea	Izenburua	Argialetxea
Joseba Sarrionandia	Hau da ene ondasun guzia	Txalaparta
Juan Martin Elexpuru	Euskal lizunkeriaren antologia	Txalaparta
Xabier Montoia	Hezur gabeko hilak	Susa
Harkaitz Cano	Pasaia Blues	Susa
Hasier Etxeberria	Arrainak ura baino	Elkarlanean
Joxe Azurmendi	Euskal Herria krisian	Elkarlanean
Jon Arretxe	Ostiralak	Elkarlanean
Gerardo Markuleta	Hautalanerako poemarioa	Erein
Patziku Perurena	Euskarak sorgindutako numeroak	Erein
Koldo Izagirre	"Merry Christmas Panamá, esan zuen heriotzak"	Euskaldunon Egunkaria
Pello Urzelai	Su-etenaren apustua	Euskaldunon Egunkaria
Ramon Saizarbitoria	Aberriaren alde (eta kontra)	Alberdania
Anjel Lertxundi	Gogoia zubi	Alberdania
Jose Luis Otamendi	Euri kontuak	Alberdania
Kike Amonarriz	Txorakikeriak II	Argia
Andoni Egaña	Basarri	Sendoa
Xabier Amuriza	Enaz Banaz	Bizkaiko bertsolari elkarte
George Sand	Negu batez Mallorcan	Ibaizabal
Jose Saramago	Lisboako Setioaren Historia	Ibaizabal

Diskoak

Egilea	Izenburua	Argialetxea
Oskorri & Urretxuko herria	Iparragirre bueltan etxera	Elkarlanean
Tapia eta Leturia & Amuriza	Bizkaiko koplak zaharrak	Elkarlanean
Berri Txarrak	Ikasten	Gor
Su ta Gar	Homo Sapiens?	Gor
Joseba Tapia	Quebec	Gaztelupeko Hotsak
Lorelei	...tatuatu zenidan zerua	Gaztelupeko Hotsak
Mikel Urdangarian	Haitzetan	Gaztelupeko Hotsak
Ene bada	Ai ene	Gaztelupeko Hotsak
Kashbad	Hesiak	Esan Ozenki
Betagarri	80/00	Esan Ozenki
Jabier Muguruza	Fiordoan	Esan Ozenki
PiLT	3	Esan Ozenki
Ekon	Etnia 2000	Mil A Gritos
Eraso	Erantzunik gabe	Mil A Gritos

# Xabier Ubera eta Iñurrategik Mungiako Trobika txapelketa irabazi berri dute

Xabier Ubera eta Iñurrategik, garaipen berri bat eskuratu zuten duela bi-hiru aste Mungiako Trobika txapelketan. Partida gogorra izan zen. Aurkari Ortego eta De luz izan zituzten, eta laurogei minutuko ekinaldiaren ostean garaipena Oskarbiko bikoteak eskuratu zuten, 22-20. Partida gogorra eta borrokatua izan zen. Markagailua beti parean joan zen ia norgehiagoka osoan. Elgetarrak 15-14 aurretik zirela, Iñurrategi dominatzen hasi eta, tantuak errenkadan elgetakoen alde erori ziren. Honela ba, 20-15 aurreratu ziren. Partida, ia erabakita zegoela zirudienean, beste bikotearen zuzperal-

dia etorri zen. Emozioa egon zen 21-20koarekin. Azkenean, Iñurrategiri zabalera ihes egindako pilota batek, Ortegoren huts bat eragin zuen.

## Gipuzkoako txapelketa

Domekan, hilak 21, Oskarbi pilota elkarteak Gipuzkoako klub arteko partidua jokatu zuen Elgetan. Lehiaketa hau Iñurrategik eta Aitor eta Xabier Uberak tartekatuz jokatzen dute. Elgetako partidand Xabierrek jokatu zuen Iñurrategirekin. Aurkari Intxaurrendoko Castellanos eta Elola izan ziren. Oskarbiko bikotea erraz nagusitu zen 22 eta 5.



*Oskarbi pilota Elkarteak badu beste garaikur bat.*

## Saskibaloikoak lau garaipen, lau partidatik

Ondo hasi dute saskibaloikoek Eibarko aurtengo txapelketa. Joko aldetik oso fin ez dabil-tzam arren, lehenengo doaz sailkapen orokorrean. Aipatzekoa, aurten taldeak puntuak sartzeko dituen zailtasunak. Oso markagailu pobreak eskuratzen ari dira. Baina, garaipenak datozen bitartean ongi etorriak izango dira, hala ere.



*"Estampa"-k asko hobetu beharko du txapelketa irabazi nahi badu.*

## Elgetako Hirutxirlo taldea Euskadiko txapelketan

Ez zaizkie gauzak ongi joan Elgetako hirutxirlo taldeari Euskadiko txapelketan. Hiruzubietako (Markinako auzoa) azken tiraldian, postuak aurreratzeko aukera zuten. Azkenean talde arteko sailkapenean hamargarren postu inguruan geratu ziren. Euskadiko txapela Hiruzubietako Goenagak jantzi zuen. Taldeka Hiruzubietako taldea izan zen txapelduna.

# IRAMA

ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
tel. mugikorra: 619692336  
tel: 789057-768025

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

# Sebastian Arantzabal: "Nere lehenengo soldatarekin eskopeta erosi nuen"

Sebastian, Zabaleta auzoan bizi den gizona eta kazaria dugu. Duela urte batzuk jubilatua edo erretiratua, makina bat oilagor hil ditu beste zenbait basurderen artean. Berak kontatu zigun nola zihoakion aurtengo ehiza denboraldia.

**- Noiztik datorkizu ehi-zarako afizioa?**


Ba, mutiko-mutikotatik, hamalau urte edo gutxiago neukanetik edo. Gure etxean, beti egon da ehi-zarako afizioa, batez ere nere osabaren aldetik. Harengandik ikasi nuen. Gero hamasei urterekin Eibarren lanean hasi eta nere lehenengo soldatarekin lehendabiziko eskopeta erosi nuen neretako, eta beste bat anaia zaharrendako. Hau 1951n izango zen.

**- Zer ehiatzen dozu?**

Lehen gaztetan zozoa eta birigarroa ehiatzen genituen. Gaur egun oilagorretan eta basurdatan ibiltzen gara. Ehiza denboraldia bada, zapatu eta domeketan basurdatan egiten dugu eta astean zehar oilagorretan. Lehen hamabostean behin lagun baten kotora joaten ginan, batez ere basurdatar, baina orain ez.

**- Zer moduz aurtengo ehiza denboraldia?**

Bueno... hasiera eskas xamarra izan da, baina piskanaka bagoaz aurrera. Hemendik kontzezino



Sebastian bere etxe aurrean, bere txakur "Bi"-rekin

egunerarte da tenporada ona. Gero hemendik gabonetara edurra mendietan 700m.tik gora egiten badu, seguru oilagorra etorriko dela. Gero izotza egotea, izotz gogorak egotea ere beharrezkoa da oliagorra gure mendietan geratu dadin.

**- Oilagorrik bota al duzue etxean? Eta beste txoririk?**

Orainarte hiru oilagor bota ditugu etxean. Anaiak bi hil ditu eta nik berriz bat. Aste honetan berriz bost bota ditugu. Eguneko bat. Gero antzarak eta usoak pasatzen dira baina oso goitik. Horiek ez dago hiltzerik.

**- Oilagorretarako txakurra nolakoa izan behar da? Zenbat izan dituzu?**

Txakurra asko ibili behar den horietako bat izan behar da, hanka onekoa eta gainera parada ona izan. Baina ez bakarrik oilagorretan, generalean baizik. Guztira zazpi bat txakur izango nituen. Zorte ona izan dut txakurrekin.

**- Nondik ibiltzen zarete gehienbat ehizan? Leku onak al dira?**

Oilagorretan Intxorta, Kanpazar eta Besaidetik ibiltzen gara. Oso leku ona da. Paraje hauek duela 30-40 urte, pinuak hamar bat urte zituztene-

an, askoz garbiago zeuden eta oilagorra errazago geratzen zen. Orain sasi gehiago dago lehen-go aldean.

**- Ehiza kiroltzat al duzu?**

Bai bai, neretako bai. Deporte onena. Gainera guk ekipoan egiten dugu lana futbol talde baten moduan. Munduko eki-porik onena dugu.

**- Zer nahiago duzu ehi-zan gustora aritu eta oilagorrik ez ekarri, edo ta sufritu eta oliagorren bat ekarri?**

Noski, mendian ibiltzea gustatzen zait, baina hiltzea danoi gustatzen zaigu. Ehizara joan eta tirorik ez botatzea ere...

Neri asko gustatzen zait mendian ibiltzea. Goizean ez badut ezer hil eta arratsaldean atera behar banaiz, ba, arratsaldean berriz.


*Ehiza kirola da, kirolik onena gainera guk beti ekipoan egiten dugu lana*

# Kontsumismoa..., ekologisten burugogorkeria?

Begiratzen dugun aldetik begiratuta ere, Euskal Herriko eta bere inguru geografikoko kontsumo-eredua eutsiezina da. Ez da gehiegi esatea gure bizitzeko, lan egiteko, produzitzeko erak ez direla betirako, ezta planetako biztanle guztientzako modukoak ere.

Hau guztiau iker-tzaileek ere esan dute. Gaur egun munduan dauden 5.800 milioi pertsonak estatubatuar arrunt bat bizi den bezala biziko balira, pertsonako 4,5 hektareako arrasto ekologikoarekin, 26.000 milioi hektarea beharko lirakeke. Baina gure planetan 13.000 milioi baino ez daude eta horietatik 8.800 milioi bakarrik dira ekologikoki produktiboak. Gauzak horrela, Planetaren hondamendiaren aurrean gaude eta arazo guztiak aurrerapen teknologikoez konpontzeko itzaropenari ezin zaio gaur egun eutsi.

Beraz, badirudi lan egiteko, kontsumitzeko eta bizitzeko era erabat aldatzeaz pentsatzen hasi behar dugula. Gure munduan kotxearekin gertatzen den moduan: gero eta ibilgailu gehiago dagoenez, errepide gehia-



go egiten dira, auto gehiago produzitu eta saldu... ondorioz, ingurunea hondatu eta nekazaritzarako guneak murrizten dira.

Gaur egungo produkzio eta kontsumo-ereduak dakarren ingurugiroaren suntsipen handia ekiditzeko bi aukera posible egon daitezke:

1/ **Aintzinako nekazari eta ehiztari-bil-tzaileen bizimoldeetara itzultzea.** Planteamendu hau ikuspegi interesgarria baino erromantikoa-gobatean oinarritzen da. Zalantzarik gabe, gizarte horiei buruzko azterketa etnologiko eta antropologikoetatik asko ikas dezakegu, baina ezin dira alternatibatzat hartu. Egungo gizarteetan benetan aurrera egitea ekarri duten aurrerapenak badaude, medikuntza

kasu: botikak kritikatu eta osasuna prebentzioaren ikuspegitik zuzentzeko arrazoirik badagoen ere, ezin da alde batera laga anestesiak, antibiotikoak edo kimioterapiak duten balio terapeutikoa, nahiz eta horiek nola erabiltzen diren kontrolatu beharra egon.

2/ **Pertsonaren eguneroko bizitza aldatzea ahalik eta zentzurik zabalenean.** Behar-beharrezkoa da konturatzea Planeta gehiegi betetzeagatik biosfera egoera larria hel daitekeela. Era berean, hausnarketa txiki bat egiten badugu konturatuko gara kontsumismoak ez gaituela ez zuzenagoak, ez askeagoak, ez zorientsuagoak bihurtzen. Zorigaitzoko kate batean sartuta gaude: lana, kontsumoa eta


zarrastalkeria edo derrotxea. Zentzuzko irtenbide bat izan daiteke giza beharrei ahalik eta lan gutxienarekin eta ekologia kontuan hartuta erantzutea. Zehatzago esateko, badirudi garran-tzitsua dela lan gutxiago egitea planteatzena denok lan egiteko eta hobeto bizi ahal izateko. Aldi berean, gaur egun nozitzen dugun langabezia desagertu egingo litzateke. Izan ere, langabezia ez da zorigaitz natural bat, boterearen esku dagoen kontu politiko sakon bat baizik. Lan gutxiago egitea eta gutxiagorekin bizitzea XX.mendearen eskakizun ekologikoetako bat da.

Gabonak oso garai egokia da kontsumismoari buruz hausnartzeko. Egun hauetan izaten dugu "onginahi"ak gure kontsumo-mailara inoiz iritsiko ez diren beste Mundu batzuetako jendearengana heldu beharko luke. Kanpora dezagun gure alderdirik onena tentsio kontsumista asezinaren aurka eginez.

**LANA EGITEKO BIZI EDO LANA EGIN BIZITZEKO ?**


## HAIZEA

## TABERNA



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256




Jesús Mari Montiel

**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719



**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**



Hoixe baietz! Lorak dira. Lora txortia dala esan dozue gehixenok, hala eta be, San Juan eguneko lora txortia zala esanda hobeto legoke. Erromillete bat zan erretratukua eta guk argazkixa etara gontzianian bedeinkautu zeguan. Bedeinkatua guri kartia bialdu doskuna be. Ander Gorosabelek kamiseta pare bat eta Mikel Urdangariñen singela eruango dittu etxera. Gura dabenian pasau deixela jasotzera.

Gaiñontzokuok badakixue, kamiseta pare bat irabazi nahi izan ezkeru kartatxo bat bialdu biharko dozue. Zer da hau?

Aurreko alerako e-mail moduan be jaso dogu lehiaketan parte hartzeko kartia. Zu atrebitzen zara????????? Hala bada bialdu Goibekokalera. Gure posta elektronikua hauxe da: Goibeko@topagunea.com Hau bialtzeko moduau ez bajatzu gustatzen betiko lekuan gare: Goibekokale aldizkaria, Salbador kalea 11, 2. esk. Ha kartia bialdu dozuenok Mikel Urdangarinen singel bat jasoko dozue. SEGI IDAZTEN.





## Makiñiak be ez daki

Hemen nator, atzera be, gure ama hizkuntziaz egin dotsen azken atakian kontra esan biharrekuak esatera. Hori atakioi ziudadian egin dotse, ez Bilbon, baiña bai ziudadian, Eibar be ziudadia da eta.

Danok dakizue zelako larri ibiltzen gazen Eibarren kotxia nun edo nun aparkatzeko, ba oiñ, hori problemioi konponitzeko, kriston denboralia obretan pasau eta gero, jarri dabe aparkalekua Txaltxa-zelaixan, hobeto esanda, zelaixa izandakuan azpixon.

Hori aparkamentuoi hantxe dagola esateko ez pentsau euskerazko

ezer jarriko dabenik, baiña zorixonez hor herri dotsuan bakar batzuk badakigu zer edo zer eta gure moduan berba egitten ez dabenek zer esaten daben be enteratzen gara, noiz ikasiko daben zain bagaoz, badakau pixkaterako!

Bada hori, ikusten dogu aparkamentuoi hantxe dagola eta hor goiaz kotxioi lagatzera. Pozik ez, pagau egin biharko dalako, baiña trankilidade apur batekin

behintzat.


Aillegatzen gara atera, eta papertxuak emoteko makiñiak ez daki euskeraz, hala eta be, guk badakigu botoitxua sakatzen eta emoten dosku papeloi. Egitten dogu egin biharreku eta bagatoz bueltan kotxe billa, eta makiñan pagau bihar handik urtetzek bada. Faten gara makiñara eta hau poza botoitxo baten "idioma" jartzen dau.

Gaztetan frailieei dirua pagau eta idioma zer dan badakigunez, sakatzen dotsagu horri botoitxuorri eta hor hasten jaku makiñioi inglezsez jo ta fuego. Frailiak onak ziran, bai. jatorri frantzesekuak izanda ez zoskuen holakoik erakutsi. Orduan, horri botoitxuorri berriro sakatu eta ondo dakigun kastellanoz egin bihar pagamentuoi.

Erakusten gabizenok ondotoxko dakigu zelako nekeza egitten jakuen pertsonai askotan euskeria ikastia, baina makiñiak be ez jakitzia, benetan grabia da.

*Kriston denboralia obretan pasau eta gero, jarri dabe aparkalekua Txaltxa-zelaixan, hobeto esanda, zelaixa izandakuan azpixon.*

Jabier Arantzeta



**KONTXI  
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

**SISTECO**

**erraminta makina**

Juan Luis Berechinaga  
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

Zapatu eta domeketan bertako babak eta saiheskia erreta.

tel: 768273

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**  
Tel: 76 81 67



Erretratua: Luis Atorrasagasti

## Orduko euskal jaixa-edo...

Erretratua laga doskunei galdetu gontsen erretratuan barri eta 20 urte inguru etaratakua dala eta ez zirala akordatzen esan zoskuen.

Erretratua begiratuta ikusten danez, dantzarixei begira ez zeguan inor. Izan leike eurixa iza-tia kulpablia, potzuak be ikusten dira eta balitke arkupiak topetara egotia.

Dantzan dabizenok orduan zortzi urte zeken. Erretratuan zeintzuk daren igartzia ez da bape erreza, baiña ifiñi egin dogu gaurko gaztiak lehen egitten ziranak ikusteko. Oin be badare umiak ikasten eta hala jarraitzen badabe hemendik urte batzutara eurena ikusteko aukeria izango dabela esan gura dotsagu. Urriak pasautakuan zelako emozioantia dan umetako erretratuak ikustia.

Lehenengo illaran: **Samuel Gorrotxategi eta Luis Atorrasagasti**

Bigarrenian: **Bittor Gallastegi eta Xabier Zabala**

Hirugarrenian: **Xabier Errasti eta Etor Telleria**

Laugarrenian: **Bixente Askasibar eta Ion Gallastegi**

Oh.: Goibekokalen etaratzia nahiko ziñueken erretratuak bialdu. Genkazen erretratuak akabau jakuz eta barrixen billa gabiz. Gero berriro bueltauko jatzue, pare bat hillabetera-edo.

Goibekokale  
aldizkariko  
loteria  
salgai



**40.955 zenbakia**



Taberna eta  
dendetan  
daukazu. Ez  
galdu aukera.